BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4449

EBAZPENA, 2011ko maiatzaren 12koa, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariarena, Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA hazitarako patataren ekoizle eta hautatzaile izateko baimendu eta inskribatzen duena.

2011ko apirilaren 19an, Amaia Ortiz Barredo Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeko Ekoizpen eta Landare Babes Saileko buruak memoria deskribatzailea aurkeztu zuen, hazitarako patata ekoizle eta hautatzaile gisa mintegiko hazi eta landare ekoizleen Erregistro nazionalean inskribatzeko eta baimena lortzeko eskatuz.

Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SA 2007az geroztik dago behin betiko inskribatuta mintegiko hazi eta landare ekoizleen Erregistro nazionalean, ES-16-01-1171 kodearekin.

Mintegiko hazi eta landare ekoizleak baimendu eta erregistratzeko eta ekoizleen Erregistro nazionalean inskribatzeko araudia onartzen duen azaroaren 14ko 1891/2008 Errege Dekretuaren 2. artikuluak xedatzen du mintegiko hazi eta landare ekoizle guztiak egoitza soziala duten autonomia erkidegoak baimendu behar dituela.

Memoria eta eskaera aztertu ondoren, Mintegiko Hazi eta Landare Zerbitzuak uste du indarreko araudiak eskatutakoa betetzen duela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 10.9 artikuluan, Estatuko Administraziotik Euskal Autonomia Erkidegora Mintegiko Hazi eta Landareen arloko zerbitzuak lekualdatzeari buruzko maiatzaren 8ko 839/1985 Errege Dekretuan, mintegiko hazi eta landareei eta baliabide filogenetikoei buruzko uztailaren 26ko 30/2006 Legean eta lehen aipaturiko 1891/2008 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 15.k) artikuluak eman dizkidan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1.– Neiker-Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea SAri hazitarako patataren ekoizle hautatzaile izateko baimena ematea.

2.– Interesatuari eta Ingurumen, Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiari honako ebazpen honen berri ematea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

3.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jar daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean, jakinarazpena egiten denetik hilabete igaro baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 12a.

Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendaria,
MARÍA PILAR SANTAMARÍA MARTÍNEZ.